



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

NOIZ: 2019ko otsailaren 26ean, arratsaldeko 15:30etan

NON: Ikaztegietakoko Udaletxeko Areto Nagusian

BERTARATUAK: Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Xabat Iburguren Lazkano (EH BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

AZTERGAIAK:

1.- Kirol anitzerako jokaleku edo pista bat eta honi lotutako oinezkoentzako zirkuitu bat egokitze eta urbanizatzeko lanen espedientea, baldintza administratibo partikularren eta gastuaren onarpena.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

2.-Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena.

3.-Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren eta Ikaztegieta Laguntza Zentroaren arteko hitzarmenaren onarpena elikagaiak herritar behartuen artean dohain banatzeko.

- ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta beraz gai zerrendako gaien azterketari ekiten zaio.

*Azaroaren 28ko Tokiko Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa arautzen duen 2568/1986 Errege Dekretuko 97.2 artikulua:

Proposición, es la propuesta que se somete al Pleno relativa a un asunto incluido en el orden del día, que acompaña a la convocatoria, en virtud de lo dispuesto en el artículo 82.3 de este Reglamento. Contendrá una parte expositiva o justificación y un acuerdo, asimismo, a adoptar. No procederá entrar a debatir ni votar una proposición sin que previamente se haya ratificado, de acuerdo con lo dispuesto en el referido artículo 82.3, la inclusión del asunto en el orden del día.

1.-KIROL ANITZERAKO JOKALEKU EDO PISTA BAT ETA HONI LOTUTAKO OINEZKOENTZAKO ZIRKUITU BAT EGOKITZEKO ETA URBANIZATZEKO LANEN ESPEDIENTEA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA GASTUAREN ONARPENA.

Ikaztegieta Udalak lan horiek egiteko ez duenez baliabide pertsonalik 2018ko abenduaren 26ko Ohiko Bilkuran erabaki zen hasiera ematea Ikaztegieta kirol anitzerako jokaleku edo pista bat eta honi lotutako



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

oinezkoentzako zirkuitu bat egokitzeko eta urbanizatzeko lanen espedienteari.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoaren Legearen 236 artikulua jarraituz, 2019ko otsailaren 22an onartutako proiektuaren zuinketa egin da. Hau da errealitate geometrikoaren eta lurren erabilgarritasuna egiaztapena.

Obra kontratua ziurtatzeko, kontratua arautuko duen baldintza administratibo partikularrak udalbatzara ekarri dira bozkatuak eta onartuak izateko.

Bestalde adierazi behar da 9/2017 Kontatu lege berriak behartzen gaituela esleipen ohiturak eta formak aldatzera.

Kontratu txikien kopuruak jaitsi egin dira: Obra kontratuetan 50.000€ tik 40.000€ ra. Horniketa eta zerbitzu kontratuetan 18.000€ tik 15.000€ ra. BEZa kanpo.

Gure kasuan kontratatu nahi den obra kontratuaren balio zenbatetsia 145.247,36€ (BEZa kanpo).

Honek behartzen gaitu kontratua arautuko duen baldintza administratibo partikula eta teknikoen agiriak prestatu, onartu eta esleipen prozedura ireki laburtu bat abian jartzera.

-Xedea: Ikaztegietakoko kirol anitzerako jokaleku edo pista bat eta honi lotutako oinezkoentzako zirkuitu bat egokitzeko eta urbanizatzeko lanak.

-Tramitazioa: Arrunta

-Esleipen prozedura: Prozedura ireki laburtua.

-Exekuzio epea: 8 aste.

-Esleipen irizpideak:



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

* Prezioa (60 puntu arte): Lehengo zehaztuko da zein den eskaintza ekonomikoena, hau da, lizitatzailerak eskaintzen duten prezio merkeena. Eskaintza merkeenak 60 puntu lortuko du.

Gainontzeko eskaintzak formula matematiko honen bidez baloratuko dira:

$60 \text{ puntu} \times \text{eskaintza merkeena} / \text{baloratu behar den eskaintza} = \text{eskaintzaren puntuazioa}$.

*Kontratuaren xedeari lotutako gizarte irizpideak (10 puntu arte): Kontratuari atxikitako langile finko bakoitzagatik 2 puntu.

Puntuazio hoberena lortu duen enpresak egiaztatu beharko du kontratuaren kopia baten bitartez.

*Kontratuaren xedeari lotutako gizarte irizpideak (10 puntu arte): Kontratuari atxikitako emakumea den langile finko bakoitzagatik 2 puntu.

Puntuazio hoberena lortu duen enpresak egiaztatu beharko du kontratuaren kopia baten bitartez.

*Antzekoak diren lanetan obraren zuzendariak (ordezkariak) duen esperientzia (20 puntu arte): obra bakoitzeko 4 puntu.

Antzekoak diren lanak bezala kontsideratuko dira eremu natural, ez urbanizagarrietan eta hormigoi drainatu zoladuretan egindako urbanizazio lanak.

*Berdinketa hausteko irizpideak:



1.- Enpresan dauden langile guztietatik ezgaitasuna egoeran edo gizartean baztertuak aurkitzen diren langile kopurua kontutan izango da. Berdintasunak jarraituko balu nagusituko da ezgaitasuna duten pertsonal laboral mugagabe gehiena edo gizartean baztertuak aurkitzen diren pertsonal laboral mugagabe gehiena duen enpresak.

2.- Langileagoan artean denbora baterako kontratu gutxien duen enpresa nagusituko da.

3.- Enpresan dauden langile guztietatik emakume gehiena duen enpresa nagusituko da.

4.- Berdintasunak jarraituko balu zozketa bat egingo da..

-Eskaintzak aurkezteko epea: Iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratzen denetik 2019ko martxoaren 27 arte.

-Lizitazioa: Elektronikoa. Eskaintza elektronikoak. Kontratatistak Estatuko edo Euskal Herriko Lizitatzzaileen Erregistroan inskribatuak egon behar dira.

-Kontratazio mahaiaren osaketa:

Mahaiburua: Alkatea (Bakarne Otegi Jauregi)

Lehen Bokala: Udaleko Idazkari kontu hartzailea (Jose Mari Saiz Pagoaga)

Bigarren Bokala: Udaleko karrera funtzionarioa (Idoia Albisu Barandiaran)

Idazkaria: Udaleko karrera funtzionarioa (Idoia Albisu Barandiaran)

Gaia aztertu ondoren, udalbatzak, bozketa egin eta gero, bertaratutako zinegotziek aho batez, honako hau erabaki dute:

LEHENA: Eranstea Ikaztegietakoko kirol anitzerako jokaleku edo pista bat eta honi lotutako oinezkoentzako zirkuitu bat egokitzeko eta



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

urbanizatzeko lanen proiektua obrak kontratatzeko espediente administratibora.

BIGARRENA: Ikaztegieta kirol anitzero jokaleku edo pista bat eta honi lotutako oinezkoentzako zirkuitu bat egokitzeko eta urbanizatzeko lanak arautuko dituen espediente administratibo eta baldintza administratibo partikularen agiria onartzea eta bide batez esleipen prozedura ireki laburtua abian jartzea.

HIRUGARRENA: Ikaztegieta kirol anitzero jokaleku edo pista bat eta honi lotutako oinezkoentzako zirkuitu bat egokitzeko eta urbanizatzeko lanen kontratazio espedientearen gastua onartzea.

LAUGARRENA: Kontratazio mahaia era honetara osatuko da:

Mahaiburua: Alkatea (Bakarne Otegi Jauregi)

Lehen Bokala: Udaleko Idazkari kontu hartzailea (Jose Mari Saiz Pagoaga)

Bigarren Bokala: Udaleko karrera funtzionarioa (Idoia Albisu Barandiaran)

Idazkaria: Udaleko karrera funtzionarioa (Idoia Albisu Barandiaran).

BOSGARRENA: Erabaki hau Ikaztegieta Udaleko Kontratazio Profileen iragartzea.

2.- IKAZTEGIETAKO UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATATUAREN ESLEIPENA

2018ko abenduaren 13ko datarekin 194/2018 zenbakidun Alkateza Dekretuz hasiera eman zitzaion Ikaztegieta udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratazio espedienteari. Bertan zerbitzuaren beharra justifikatzen zen.

2018ko abenduaren 26ko ohiko udal bilkuran aho batez ondorengoa erabaki zen:



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

-Ikaztegietakoko udal eraikin garbiketa zerbitzua arautuko duen espediente administratibo eta baldintza administratibo partikularen eta teknikoen agiriak onartzea eta bide batez esleipen prozedura ireki laburtua abian jartzea.

-Ikaztegietakoko udal eraikin garbiketa zerbitzuaren kontratazio espedientearen gastua onartzea.

-Kontratazio mahaia era honetara osatuko da:

Mahaiburua: Alkatea (Bakarne Otegi Jauregi)

Lehen Bokala: Udaleko Idazkari kontu hartzailea (Jose Mari Saiz Pagoaga)

Bigarren Bokala: Udaleko karrera funtzionarioa (Idoia Albisu Barandiaran)

Idazkaria: Udaleko karrera funtzionarioa (Idoia Albisu Barandiaran).

-Erabaki hau Ikaztegietakoko Udaleko Kontratazio Profilean iragartzea.

Eskaintzak aurkezteko epearen barruan, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen zenetik 2019ko urtarrilaren 25 bitartean, 7 enpresek eskaintza aurkeztu zuten. Tecnicas de Ingenieria R.S.A, Limpedur S.L, Limpiezas Abando S.L, Grupo Sifu Euskadi S.L, Elena Monica Florea, Mari Jose Irazusta Zuriarrain eta Serdicam enpresak.

2019ko otsailaren lehen kontratazio mahai osatu zen eta enpresek aurkezturiko eskaintza elektronikoa zabaldu ziren deialdi irekian.

-Tecnicas de Ingenieria R.S.A (TIRSA): Lan egun bateko orduko prezioa: 17,75€ /ordua BEZik gabe.

-Limpedur S.L: Lan egun bateko orduko prezioa: 17,49€ /ordua BEZik gabe.



2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

-Limpiezas Abando S.L: Lan egun bateko orduko prezioa: 17,22€ /ordua BEZik gabe.

-Grupo Sifu Euskadi S.L: Lan egun bateko orduko prezioa: 16,49€ /ordua BEZik gabe.

-Elena Monica Florea: Lan egun bateko orduko prezioa: 15,45€ /ordua BEZik gabe.

-Mari Jose Irazusta Zuriarrain: Lan egun bateko orduko prezioa: 17,40€ /ordua BEZik gabe.

-Serdicam: Lan egun bateko orduko prezioa: 16,41€ /ordua BEZik gabe.

EMPRESAS	OFERTAS	PUNTUACION PRECIO	PERSONAL ADSCRITO AL SERVICIO	TOTAL PUNTUACIÓN
TIRSA SL LIMPIEZAS ABANDO SL	17,75	65,28169014	25	90,28169014
LIMPEDUR SL GRUPO SIGU EUSKADI SL	17,22	67,29094077	25	92,29094077
ELENA MONICA FLOREA	17,49	66,25214408	25	91,25214408
MARIJOSE	16,49	70,26986052	25	95,26986052
SERDICAM	15,45	75	25	100
	17,4	66,59482759	25	91,59482759
	16,41	70,61243144	25	95,61243144

Ondoren kontratazio mahaiak Eusko Jaurlaritzako Lizitatzailleen eta Kontratisten Erregistroa egiaztatu zuen. Bertan egiaztatu zen Elena Monica Florea andrea autonomo bezala eratuta dagoela, botere nahikoa duela autonomo gisa jarduteko eta ez duela inolako debekurik sektore publikoarekin kontratatzeko.

Hori dela eta kontratazio mahaiak 7 eguneko epea eman zion Elena Monica Florea andreari ondorengo agiriak aurkezteko:

-7 eguneko epean **1.699,50€ ko fidantza** jarri beharko duzela kontratuaren behin betiko berme gisa. Esleipen prezioaren %5a BEZa kanpo.



-7 eguneko epean **Gizarte Segurantz**an altan dagoela ziurtatzen duen agiria aurkeztu behar duela.

-7 eguneko epean Ogasuneko **Jarduera Ekonomikoen erroldan altan dagoela** ziurtatzen duen agiria aurkeztu behar duela.

-7 eguneko epean **Ogasunarekin zorrik ez** duzula egiztatzan duen ziurtagiria aurkeztu beharko duela.

-7 eguneko epean **Gizarte Segurantzarekin zorrik ez** duzuela egiztatzan duen ziurtagiria aurkeztu beharko duela.

-7 eguneko epean aurkeztu beharko duela **arriku profesionalengatik erantzukizun zibileko 600.000€ ko gutxienezko estalduraren ordainagiria.**

Kontutan izanda Elena Monica Florea andreak epe barruan eskatu zaizkion agiri guztiak aurkeztu dituela, kontratazio mahaiak proposatzen dio udalbatzari, organo eskudunari, bere aldeko udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena.

Beraz kontratazio mahairen esleipen proposamena aztertu ondoren bertaratutako zinegotziek aho batez, honako hau erabaki dute:

LEHENA: Elena Monica Florea andreari esleitzea udal eraikin garbiketa zerbitzuaren kontratua 2 urtez, luzagarria beste bi urtez.

BIGARRENA: Esleitzen den kontratuaren prezioa ondorengoa izango da:

Lan egun bateko orduko prezioa: **15,45€ /ordua BEZik gabe.**

Urteko lan orduen estimazioa: **1.100 ordu.**

*Kontratua 2 urtetarako denez: 33.990 € (Lizitazio prezioa BEZa kanpo).



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

HIRUGARRENA: Gogoraraztea Elena Monica Florea andreari zerbitzua ezingo dela eman gabe gelditu. Bere ordezkapen lanak egingo dituen pertsonaren izendapenaren berri eman beharko duela Ikaztegieta Udaletxean kontratua sinatu aurretik.

LAUGARRENA: Ikaztegieta Herri Eskolako Zuzendaria, Kiroldegiko arduraduna eta Udaletxeko Alkatea izango dira udal eraikinen garbiketaren zerbitzuaren arduradunak.

BOSGARRENA: Elena Monica Florea andreak baldintza administratibo partikularren agirian jasota dauden kontratua betetzeko baldintza administratibo partikularrak bete beharko ditu. Bete ezean isunak ezarriko dira edota kontratua bertan behera utziko da.

SEIGARRENA: Esleipen erabakia Ikaztegieta Udaleko Kontratazio Profilean iragarriko da.

ZAZPIGARRENA: Esleipen erabakia Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoaren plataformaren bitartez jakinaraziko zaio Elena Monica Florea andreari.

ZORTZIGARRENA: Elena Monica Florea andreari Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoaren plataformaren bitartez jakinarazi ondoren kontratua formalizatuko da beti ere 10 eguneko epearen barruan.

3.-GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUAREN ETA IKAZTEGIETAKO LAGUNTZA ZENTROAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA ELIKAGAIAK HERRITAR BEHARTUEN ARTEAN DOHAIN BANATZEKO.

Ikaztegieta Gizarte Zerbitzuen ardura eramaten duen Zinegotziak, Miren Mendizabal Macazaga zinegotziak, Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren eta Ikaztegieta Laguntza Zentroaren arteko hitzarmena udalbatzara ekartzen du bozkatua eta sinatua izateko.

BANAKETA-HITZARMENA:



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

Gipuzkoako Elikagai Bankuak (aurrerantzean, GEB) eta Ikaztegieta Laguntza Zentroak (aurrerantzean, Laguntza Zentroak) elikagaiak doan banatzeko hitzarmen hau izenpetu dute.

1) GEBek doan emango dizkio elikagaiak Laguntza Zentroari, baldintza hauei jarraiki:

Artatzen duen pertsona-kopuruan oinarritutako banaketa-irizpideak, biltegiko izakinak eta produktu-sarreraren aurreikuspenak.

2) Laguntza Zentroak ez du jasotako elikagaiei buruzko erreklamaziorik egingo, eta elikagaiak bere bitartekoen bidez eta GEBek zehaztutako datetan jasoko ditu, ezinbesteko kasuetan -eta GEBekin adostuta- izan ezik.

3) Elikagaiak jasotzen dituen bakoitzean, Laguntza Zentroak baimendutako pertsona batek dagokion garraio-agiria sinatuko du, eta kopia bat emango zaio jasota izan dezan.

4) Laguntza Zentroak helaraziko dizkie jasotako elikagaiak berak artatzen dituen eta janari horren beharra duten inguruko pertsonen bakarrik (auzokoak, udalerrikoak). Banaketa egiterakoan, ez du erabiliko generoarekin, arrazarekin edota erlijioarekin loturiko irizpide diskriminatzaileak.

5) Laguntza Zentroak artatzen dituen pertsonen zerrenda bat izan beharko du. Halaber, bere onuradunen premia-egoera ezagutu eta baloratu egin beharko du.

6) GEBek egoera onean banatuko ditu elikagaiak. Laguntza Zentroa izango da azkena horiek erabiltzen, hortaz, bere ardura izango da onuradunei elikagaiak kontsumitzeko egoera egokian helaraztea. Konpromiso hori beteko ez balitz, eta emandako elikagaien erabilera aproposa izango ez balitz, Gipuzkoako Elikagai Bankuak ez luke horren gaineko erantzukizunik izango.



7) Elikagaiak Laguntza Zentroak artatzen dituen familia behartsuei ematen bazaizkie, banaketa hori doakoa izango da, eta beharrezko neurriak ezarriko dira elikagai horiek ez merkaturatzeko edo beste pertsona batzuei ez lagatzeko.

8) Laguntza Zentroak baditu garraiorako, biltegiratzeko eta banaketa egiteko baliabide aproposak; izan ere, ibilgailuak, biltegia eta langile egokiak ditu horretarako.

9) Laguntza Zentroak ez du biltegiratuko behar beste baino elikagai gehiago. Hala, ez dio elikagai gehiago eskatuko GEBeri harik eta azkenekoz jasotakoak bukatu arte.

10) Laguntza Zentroak idatziz emango dio GEBeri gai hauen berri:

- Onuradunak aukeratzeko irizpideak.
- Elikagaiak biltegiratzeko eta banatzeko ohiko guneak. Era berean, elikagaiak normalean noiz banatzen dituen jakinaraziko dio.
- Elikagaien hornidura egiteko bestelako bideak.
- Elikagaien banaketa edo kontsumoa dela eta, erakunde publikoekin (Eusko Jauriaritza, Foru Aldundia, Udalak) dituen hitzarmenak.
- Laguntza Zentroan gerta daitezkeen aldaketak: artatutako onuradun-kopurua, harremanetarako pertsonak eta datuak, edota biltegiratze-/banaketa-helbidea.

11) GEBek Laguntza Zentroaren izena eta biltegiratze-/banaketa-helbidea “Laguntza Zentroen” zerrenda batean argitaratu ahal izango ditu, emandako elikagaien helmuga zein izan den jakinaraztea xede.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2019KO OTSAILAREN 26KO EZ OHIKO UDALBATZA

12) Laguntza Zentroak ez du garatuko GEBeren ospeari kaltea eragin diezaiokeen programarik, ekintza publikorik eta, oro har, jokaerarik.

13) Laguntza Zentroak ez du erabiliko "Gipuzkoako Elikagai Bankua" izena sorten banaketazerbizurako.

14) Hitzarmena deuseztatu egingo da -eta, horrenbestez, Laguntza Zentroak GEBeren erakunde laguntzailea izateari utziko dio- Laguntza Zentroak hauek eginez gero: hitzarmen honetan jasotako konpromisoak urratu, Gipuzkoako Elikagai Bankuaren izenari edo irudiari kalte eragiten dion edozein ekintza, ezlekuak erabili eta elikagaien banaketa desegokia egin, jasotzen dituen pertsonaren eskubideei kalte eraginda.

Beraz Banaketa Hitzarmena irakurri bertaratutako zinegotziek aho batez, honako hau erabaki dute:

LEHENA: Onartzea Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren eta Ikaztegieta Laguntza Zentroaren arteko banaketa hitzarmena.

BIGARRENA: Bakarne Otegi Jauregi baimentzea Ikaztegieta Udalaren izenean hitzarmen hau sinatzeko.

Horrenbestez, arratsaldeko 15:50 direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegieta 2019ko otsailaren 26ean

O.I.
ALKATEA,



